

Noqua!!

H A M A B O S K A R I A

2002ko martxoaren 8a VII.urtea

Usurbil, 131. zenbakia

**Ekoiuzpen ekologikoan
oinarrituriko elikadura
sustatu nahian**

USURBI L

GIDARI-ESKOLA



%20ko deskontua matrikulan!

MATRIKULA ZAITEZ!

Kale nagusia, 5
Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71

zure orain arteko Aholkularitza Enpresak ez badizu lasaitasuna ematen....

EUSKALGESTION

Aholkularitza taldeak

...behar dituzun konponbideak ematen dizkizu.

- 30 urte enpresen zerbitzura lanean
- Gure lana berria eta ezberdina da
- Zure etxera joaten gara
- Prezioa zure beharren arabera egokituta

Ezagutu

EUS-

KALGESTION eta deitu
konpromisorik gabe!

Telf: 649 42 23 27



HEMEN DA EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA

Mundu zabalean herri askeek egiten duten bezala, euskaldunok ere gure naziotasuna aitortu nahi dugu.

Herri guztiek dute erabakiak askatasunez hartzeko eskubidea eta beren egitura politikoa eta beren ekonomia, gizartea eta kultura askatasunez garatzeko. Gizaki guztiek naziotasuna izateko eskubidea dute.

Inori ezin zaio naziotasuna ukatu edo naziotasuna aldatzeko eskubidea kendu. Euskal herritarrek garcen heincan naturaltasun guztiarekin garena aitortu nahi dugu munduaren aurrean.

Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsian Biltzarrak - UDALBILTZAK- Batzar Orokorrean Euskal Herriko Naziotasun Aitormena bideratzeko konpromisoa hartu zuen.

Herritarrek beren naziotasuna aitortu dezaten, Udalbiltzak Euskal Herriko Naziotasunaren Aitormena egiteko inprimakiak udalaren esku jarri ditu jadanik.

USURBILGO UDALAK LARUNBATERO GOIZEKO 11:00etatik 13:00era UDAL PLENO ARETOA IREKIKO DU EDOZEIN ZALANTZA HERRITARREI ARGITZEKO.
AURKEZTU BEIARREKO DOKUMENTAZIOA:
Errolda agiria, 3 argazki eta ordain agiria

HEMEN DA

EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA



Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Xabier!**
Martxoaren 1ean 10 urte egin zituen. Aita-ama eta etxeko-en partez, zorionak eta muxu handi bat.



Zorionak **Christian!**
9 urte beteko ditu martxoaren 11n. Etxekoak, aiton-amonak eta Isabel amonaren partez zorionak!



Zorionak **bioi!**
San Jose bezperan zein egunean jaio zineten bi loreei muxu handi bana eta beti bezain alai eta polif jarrai dezazuela. Zorionak etxekoen partez!



Zorionak **Martina!**
Martxoaren 2an urteak egin zituen. Orain bezala, aurrerantzean ere 20 urteko sasoiarekin jarrai dezala.



Zorionak **gure txikiyari!**
Oraingo honetan mende laurdenera iritsi naiz (zahartzen ari haizela). Egun on bat pasako zenuelakoan, zorionak!



Zorionak **Erramun eta Simona!**
Pasa den otsailan aitonaren urtebetetzea eta aiton-amonen 45. ezkon-urtemuga izan zenez, zorionak etxeko guztien partez. Segi horrela!



Zorionak **bikote!**
Intza izeneko ume eder bat ekarri dute mundura. Zorionak senideen partez.



Zorionak **Garil!**
Martxoaren 12an 23 urte beteko dituzenez, zorionak "Xangarin" lagunen partez!



Berandu samar bada ere, otsailaren 14an eta martxoaren 1eko partez, zorionak **izeba Inaxi eta amona Anjela!** Segi horrela biok poxpolin poxpolin!! Zuen familia



Hildakoak

Pilar Gorospe Gastaminza

2002-II-24

Kalezar

Jaiotzak

Aitor Zubelzu Irazusta

2002-II-18

Kaleberri

Onintza Makazaga Sanchez

2002-II-21

Leku Eder

Bai, esan?

• Udala	37 19 51
• Udaltzaingoa	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	37 01 48
• Anbulategia	36 20 13
• Udarregi ikastola	36 12 16
• Udarregi (Kalezar)	36 45 00
• Agerialde ikastetxea	36 38 95
• Oiarde kiroldegia	37 24 98
• Zumarte	37 15 94
• Etumeta	37 20 01
• Taxi geltokia	36 21 78
• D.Y.A.	46 46 22
• Ertzantza	112
• Suhiltzaileak	112
• Larrialdiak	112
• Anbulantziak	112
• Posta Kutxa	36 28 49
• Gure Pakea	37 32 28
• Gure Elkarte	37 17 51
• Arrate egoitza	36 63 40
• Eusko Tren	47 09 76
• Noaua! aldizkaria	36 03 21
• Bake epaitegia	37 23 36
• Oa farmazia	36 12 17
• Iturralde farmazia	36 33 95
• Zubietako Herri Batzarra	37 20 77
• Argindarra (Iberduero)	47 09 76

Martxoa

Astel.	Astear.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igan.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

● Hurrengo alea

Udaltzaingoa ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112

Noaua! aldizkaria
Bordaberri, 3
Usurbil
noaua.k.e@euskalnet.net

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuarte badabilkizu edo eta herriko zerbaitetaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

Kazetarien koordinatzailea

Imanol Ubeda

Kazetariak

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta
Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika,
Garikoitz Udabe, Zaloe Arnaiz eta
Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta
Kerman Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Legre-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendareko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Eredu ekologikoak elikaduran sustatzeko taldea martxan da

**Martxoaren 8a****Mila Manterola
LABeko kidea**

Emakume Langilearen eguna dela eta, bizi izan ditudan zenbait egoera etorri zaizkit gogora. Hala ere, ez naiz mintzatuko niri gertatutakoaz, aldiz, martxoaren 8ak suposatzen duenari bere orokortasunean helduko diot.

Gezurra badirudi ere, XXI. mende honetan, emakumearen eskubideak aldarrikatzearen eta defendatzearen beharrean aurkitzen gara. Nolabait azaltzeko, ondorengo datuak adierazten dute gutxi gorabehera lan merkatuan nola kokatzen garen:

- Exekutibetako lanpostuetan %12a baino ez dira emakumeak.
- Emakumeen %60a lan merkatutik kanpo dago.
- Emakume gazteen %53a langabezian dago.
- Emakumezkoen batz besteko soldata gizonezkoena baino %30 baxuagoa da.
- Emakumezkoen aktibitate tasak %36an kokatzen da; gizonezkoena, ordea, %64an dago.
- Behin-behinekotasuna eta langabeziaz gain, emakumezkoei egindako kontratu gehienak zati-kakoak izan ohi dira.
- Lan merkatuan sartzeko zailtasunek emakumeak ezkutuko ekonomia bultzatzen ditu: honetan gehiengo direlarik. Ildo honetan, lan baldintzak txarrak ematen dira eta soldata txikiekin topatzen gara.
- Emakumezko langile gehienok lanaldi bikoitzari egin behar diogu aurre (lantokia, familia eta etxea-

ren ardura).

Honi guztiari lotuta, egun, pobrezia emakumeen artean gero eta gehiago dago. Familia-buru izanik, langabezian dauden 10 emakumetik 6 pobrezia larrian bizi dira. Bestalde, ezin dugu utzi aipatu gabe erasoei dagozkien datuak, 10 emakumetik 1ek baino ez du salaketa aurkeztzen, eta beren atsekabea ezkutuan gordetzen dute.

Begibistakoa den bezala, ezin esan datu hauek baikorrak direnik. Hau guztia politika baten ondorio dela kontuan izanik, euskal gizarte aurrerakoi baten aldeko apustuari eutsi behar diogu. Ildo honetan, generoarekiko neutrala izatea eskatuko nuke. Horregatik, bat nator, zenbait esparrutan bultzatzen ari den Aukera Berdintasuneko planarekin. Noski, LABen ere hasiak gara.

Bukatzeke, eta hau guztia gutxi izango balitz, bi gai hauek azpimarratu nahi nituzke: alde batetik, Toledoko Itunaren Jarraipen Batzordearen Lehendakaria den Fdez. de Troconiz jaunak esandakoa: « emakumeek gehiago bizi garenez, pentsioen gaia berraztertu beharko da»; eta bestetik, Alardeekin gertatzen ari dena. Honez zera bururatzen zait, esaerak dion bezala: hamaika ikustekoak jaioko gara!!

Martxoaren 8an euskal gizarteak gure duintasun eta eskubideen aldeko oihuak entzungo ditu. XXI. mende hau berdintasunaren mendea izan dadila.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Buztinzulok etxeetako plakak egiten jarraituko du

Kaleetako izendegiak aspaldi egin zituen Buztinzulo Zeramika Taldeak. Iaz, ordea, hainbat etxeetako plakak egiten hasi ziren. Dirulaguntza bati esker, herriko 19 etxebizitzaren plakak osatu zituzten. Aurten, beste hainbeste egingo ditu Buztinzulo Taldeak. Miguel Angel Goenagak eman dizkigu ekimen honen xehetasunak eta bide batez, taldearen ibilbidearen berri eman digu.

Beste 19 plaka egiteko dirulaguntza jaso berri du Buztinzulo elkarteak. Plaka bakoitzaren kostua 26.000 pezeta-takoa da baina etxe-jabeei doan ateratzen zaie plaka hau. Gainera, denok pozik egon asmoz, hiru plaka ezberdinen artean aukera dezakete etxe-jabeeek.

Miguel Angel Goenaga Buztinzuloko kidea da eta berak azaldu digunez, "buztin erretraktarioa erabiltzen dugu. Plakak 1mx25 zm-ko neurria dute. Bi labekadatan egosten dugu buztina". Lehenean buztina sendotzeko egiten



Zumarte Eskola azpian topatuko duzue Buztinzulo taldearen egoitza.

da. Ondoren, esmaltea eman eta bigarren labekada ematen zaio plakari.

Dirudlenez, Foru Aldundiak era honetako ekimenak sustatzeko bideratzen duen partida batean oinarritzen da aipatu dirulaguntza.

Bestelako lanak ere egiten ditu Buztinzulo taldeak. Oraintsu amaitu berri dute Gizarte Zerbitzuen egoitza berrirako plaka. Udarregiko Ikastolako egiten ari direna ere laster

ikusiko dugu Ikastolako paretean eskegita. Gorostitxoko logotipoa, Frontoiko murala eta Zumetaren muralean falta ziren 11 azulejoak ere Buztinzulokoek egindako arte-lanen artean aipa ditzakegu.

Duela 18 urte sortu zen Buztinzulo Zeramika Taldea. Zeramikazaleek txoko polita dute aukeran Zumarte Musika Eskolako azpiko lokalean.

Imanol Ubeda

Leku askotan topatuko dituzue talde honen lanak



Etxetako izendegi-plakak.

Iaz 19 egin zituen eta aurten beste 19 plaka egingo ditu Buztinzulo Elkarteak.



Frontoiko murala.

Duela bost urte osatu zuten frontoiko lan hau. Uraren kanalizazioa estali eta ingurua apaintzeko egina.



Gorostitxo.

Irudian ageri den zeramika hau Gorostitxo Eztiolako atarian topatuko duzue.

SANTUENEA

Pako Agudo



Obrak direla eta, arazoak autoa uzteko

Auzora hurbildu baino ez dago azken berriak nondik nora dabilzan jakiteko. Denok gasa iristeko zain egon gara denbora askoan, baina, honek badu ondorio txarrik ere.

Izan ere, gasaz gozatzen hasi baino lehen, jada iristi baita arazo dezentee; besteak beste, akabo goizetan lo egiteko lasaitasuna. Makinak gure auzotik joateko itxaron beharko dugu, beraz, ezinbestean haiek sortzen dituzten zaratei egokitu beharko dugu denboralditxo batez.

Baina bada zarataz gain, niretzako arazo larriena den kontutxo bat: aparkalekuak.

Lehen edozein tokitan uzten

zen autoa, etxeko ataritik ahalik eta hurbilen geratzeko, eta ez aparkaleku falta dagoelako. Baina, orain, obrak direla medio, harrigarria da!

Obrekin aparkalekuaren arazoa larritu egin da oraindik gehiago. Egia da aparkaleku gutxiago daudela, baina, nire ustetan, nahikoak badaude guztientzako. Kontua da, autoa derrigorrez etxe atarian utzi behar dugula, eta, beraz, etxe atari guztiak kotxez gainezka daudenez, badijadi ez dagoela autoa uzteko lekurik. Baina, ez gaitzen engainatu, izan ere, pixkat gehiago ibiliko bagina, denontzako tokia egongo litzateke.

Bestalde, ezin utzi aipatu gabe, Artzabalgo babes ofizialeko etxeak egokitu zaizkien auzotarrak: Esteban Muñoz, Betisa Carrasco, David Goldeiros, Diego Lopez, Esther Martin eta Juan Bautista Padrones.

Zorionak, beraz, seikote! (ni ere zozketan nengoen, baina ez nuen zorterik izan!)



URDAIAGA

Eider Jauregi



Errepide bazterrak

Badira hilabete batzuk inguru hauetako pinudiak ateratzen hasiak zirela jakinarazi nizuenetik. Gaur, ordea, guztiz kontrakoa den albiste batekin natorkizue.



Pasa den astean inguru txukuntzen ari zirela konturatu nintzen, horrekin Udala errepide inguruak isteko lanetan hastera zihuala pentsatuz.

Baina ez, nahiz eta Udalak agindu duen errepide inguru itxiko duela, honek duen egoera txar-rarengatik, nik jakitera eman nahi nizuena ondokoa da.

Berrero ere hasi direla pinua landatzen. Ia ez dira landareak ikusi ere egiten baina benetan arretaz begiratzuz gero ikus daitezke pinu landare txikiak. Beraz, hemen-

dik urte batzuen buruan errepide inguru guztia pinudiz josia aurkituko dugu.

Honez gain, bada ukitu nahi dudan beste gai bat eta zera da. Errepideaz gain pinudia atera ondoren, betidanik eza-gutzen genuen "bide txurra" ren zati bat desagertu egin dela edo, hobe esanda, ez dagoela lehengo bideari jarraitzerik.

Hau bertan gelditu diren ezpal eta zaborren ondorio delarik. Jakingo nuke gustura nork duen bide hau garbi mantentzeko erantzunkizuna baina bien bitartean hala nola ibili beharko dute bertatik igarotzea pentsatzen dutenek.

KALEZAR

Urko Manterola



Auzoa konpondu nahian

Oraingo honetan ere, gehientsuenetan bezala, kexuka nator gure auzo eder honen kalterako diren gauzak irakurleoi ezagutarazi asmoz.

Lehen kexua, argi kontuei dagokiona da, auzotar baten eskariz jarria, hain zuzen ere. Iartza baserrira arte farolak daude bidean, baina hortik

gora ez dago bat ere ez.

Hori dela eta, nik ere eskari bat egin nahi ko nuke: bide eremu honetan, edo Usasku inguru arte behinik behin, farolak jartzea, izan ere, neguan batez ere, oinezkoentzat

ez baitago argirik.

Bestalde, nire bigarren kexuari helduz, zabor kontuak aipatu nahi nituzke. Nik dakidala behintzat, Kalezarren bi kontainer baino ez ditugu; bata, Troiako bidegurutzean eta, bestea, monjen konbentuaren ondoan.

Nire ustez, ez dira nahikoak auzoarentzat. Honen erruz askotan zaborra bidean zabaldua ikusi behar izaten dugu, zakurrek eta katuek zabaldua.

Beraz, nire kexuak kontutan izango direlakoan eta gaurkoz nahikoa kexu aipatu ditudalakoan, agurtzea izango da onena.



ATXEGALDE

Ione Eizmendi



Argiak eta martxoak 8

Berriro ere hemen gatzogure auzo edo auzotarrei buruz hitz egitera, edo hobeto esan, oraingoan behintzat kexa bat jartzera. Atxegalden erdiko kalera etortzen bazarete, batez ere gauean, bi farola puskatuta daudenak konturatu zarete; gainera, elkarren segidakoak. Eskerrak Alkorta harategiko argiei, bere aurrean baitaude bi aldetara puskatutakoak. Antza denez, larunbat goizaldera ziztu bizian etorri zen kotxe batek puskatuak izan dira. Gaueko parrandaren ondoren indartsu ibiliko zen norbait; baina bista gutxirekin, farolaren postea ez ikusteko!


Pentsatzen dut inor ez zela joango udaletxera zer gertatu zen aitortzera. Hala ere, badira

hiru edo lau aste horrela gaudela, eta ea lehenbailehen jartzen dituzten farola berriak.

Bestalde, martxoan sartuak gara dagoeneko, eta eguna luzatzearekin batera antzematen da udaberri usaina.

Gainera, martxoaren 8az ere ezin ahaztu, batez ere emakumeok. Arazoak arazo, saia gaitzen ahalik eta ondoen ospatzen. Herri mailan hitzaldi edo afariaren bat antolatuko da eta ondo egongo litzateke emakumeok egun horretan elkartuko bagina.

Ba, anima gaitzen ahal dugun guztiok. Beharbada sagardotegiren batean "txotx" egingo dugu!!



TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Erroizpe elkartearen batzar orokorra

Otsailaren 24an Erroizpe elkartearen aurtengo batzar orokorra izan zuten. Larogei bat bazkide geunden deituta baina aurrekoetan bezala oso jende gutxi azaldu zen.

Bertan, zuzendaritza batzordeko kideak aktaren irakurketa egin ondoren, ekonomia kontuak zehaztu zituzten (diru kontuak, inbentarioak...) Gauzak ondo doaz, baina nabarmendu zuten elkartearen, astegunetan batez ere, ez dela mugimendu handirik izaten, jende gutxi ibiltzen dela eta ondorioz diru sarrerak urriak direla. Bazkideak kuota igotzea erabaki zuten.

Bestalde, jakina denez, sozietate

dadea Osasuna etxeko beheko solairuan dago errenta ordainduz jabeari, honek duela lau bat urte epaiketara jo eta galdu zuelako, bere asmoa elkarteak bere lokaletik botatzekoa baitzen.

Orain dela gutxi berriz jabea hil egin da eta epaiak zioen bezala, lau urte geratzen direnez, akordiorik lortu ez ezean, bertan jarraitzeko, bestela aldegin egin beharko dute, jentak jabe berriarekin harremanetan jartzeko agindua jaso zuen, bai lokala erosteko edo errenta kontratu berri bat egiteko akordio batera iristeko posibilitaterik bazegoen ikusita, alegia zer intentzio dituen Osasuna etxearekin egiteko

aztertzea.

Aipatu zen baita ere etxe berriak eraikitzeak direnez, egun hori iristen denean lokal bat hartzea edo beste behin ere aipatu den bezala zaharrentzako egoitzik eta beste biltokirik ez dagoenez auzoan, Usurbilgo Udala inplikatu eta berari eskatu lokalen bat. Argi dagoena bazkideen kezka nagusia lokalarena dela, hemendik lau urtera kalean ikusten baitira.

Bukatzeko, aurrerantzean urtero batzar orokorra otsaileko azkeneko igandean burutuko dela. Proposatu zen isuna ezartzea batzarrera etortzen ez zen bazkideari eta eztabaidatu

KALEBERRI

Eneko Harreguy



ZENBAT

Zenbat tokitan, zenbat errepidetan jarri dute gehien-go abiaduraren muga? Hau da, ezin gaitezkeela abiadura jakin baten gainetik ibili? Beti ere, muga goren hori autobiodeetan orduko 120 kilometro denean...

Ia guztietan, ezta? Andoain-Donostia errepidean, esaterako - batez ere labaina dagoenean-, istripu ugari izaten direla eta saihesteko aipatu irizpidea erabili dute. Baina abiadura azkarrenak ere ez du 80 kilometro orduko gainditu behar.

Aspaldi ongi ordaindutako A-8an garraiatzeko (askotan derrigorrez!, edo geratzen den beste bideak zorabiatzen gai-

tuelako) ordaindu egin behar da, eta, gainera, euren legetara makurtu. Hamaika txokotan kokatuta daude radar bidezko tranpak. Eta sare horretan eroriz gero askatzeko dirutza ordaindu behar da: "zure gainditze-abiaduraren araberrakoa izango da isuna, noski!".

Zenbat istripu, eta zauritu, eta hildako gertatu ote dira abiaduraren erruz?! Eta abiaduraren erruz diot, nahiz eta jakin dakidan autoei ez zaiela azele-ragailua inork eragin gabe jais-ten.

Berriz ere, zenbati eta zenbat aldiz entzun baino entzunago diogu bidean arretaz eta presarik gabe gidatu behar dela

- "bestela, kontuak lehenago ateratu!", 120 ez gainditzeko...

Horixe litzateke idealena... guztiok beteko bagenu!

Baina honek guztiak ez du zentzu handiegirik orduko 200 kilometrotan ibiltzeko gai diren automobilak egiten badituzte. Iruzur eta negozio hutsa da. Familia asko seniderik gabe, koadrilakoak lagunik gabe... eta horrela ezin konta bezainbat. Isunen kontura kontu galantak ordaindu dituzte bes-tetzuek. Azken finean, inork (den.denek ere ez!) desio ez dugun egoerara garamtza.

Hemen... ezin zaio inori tiro egin, baina pistolak salgai daude.

AGINAGA

Zaharrak berri

Pasa den igandean, hilaren 3an, Aginagako zahar egoitzan jubilatuz bazkaria izan zen, bera lepo bete zelarik (gero zaharrak ere bai) urteroko diru kontuak... ospatu

asmoz.

Hau ikusita, Aginagan gazteak baino zahar gehiago dagoela konturatu ginen eta... ez dakit, ba! Hasi gazteak egin beharrekoak egiten! Pixka bat

Oskar Santamaria



balantza berdintzeko eta egiten ari zaizkigun frontoi hau, ume pilotariez bete-bete eginda ikusteko, gero-gerokoak...

Frontoiaz ari naizela, Aginagako metropolian a ze kaos-a dabilkiguna alde batetik bestera joateko, aparkatzeko... hala ere, merezi du horrela ibiltzeak San Praixkutarako egiten badigute behintzat! Dagoeneko, herriko gazte asko apustuak botatzen ari dira elkarri, frontoi berrian gero jokatu asmoz.

Hemen berri gehiago ez dugu, hori da gauza (ez umerik ezta frontoirik ere) beraz, gehiago berrikeri bada, badakizue zer egin, gustura eskertuko nizuekel!



ZUBIETA

“Ordainlekua” non?

Oraingoan aipatuko dizuedan gaiak, Zubietako bideak erabiltzen dituen edozeinek du lotura, batez ere ibilgailuen erabilpenarekin.

Betiko bideak, errebueltak... geroz eta handiagoak ari dira egiten gurean. Honek, derrigorrez, beste gauza bat ere suposatzen du: belardien eta zelaien txikitzea. Zenbait baseritarrei, bere belardietako txokorik ederrak lapurtu dizkie.

Momentu honetan kamioiak, eskabadorak eta noski langileak dabilta etengabe, jo eta su, berrikuntza lanetan, hobe esanda, zabalkuntza lanetan. Zehazki esanda, hiru errebueltetan ari dira izugarritzko lur-jateak egiten.

Etxe berriekin ere Araeta ondo-

an hasiak dira zuloa egiten baina sakonago hasten direnean eta kamioiak ugaritzen direnean, eguraldi txarrarekin errebueltako eta etxeetako kamioiekin izugarritzko txokolatea egingo da.

Errebueltan kontu honek, denentzako ondorio on bakarra du: autoan goazela, besteekin gurutzatzerakoan; autoak, oinezkoak... lasaiago joango gara eta gainera bisibiltate ere lagun izango dugu. Ez da gauza hor bukatzen ordea, gainontzekoak ondorio txarrak dira: autopista baten antza hartzen ari da, falta zaigun gauza bakarra ordainlekua da.

Alex Udabe



Abiadura izango dugu nagusi eta gainera, kontrolatu gabeko abiadura.

Nik uste dut, hobe luketela honelako konponketa esageratuak egin beharrean, zenbait tramuetan oinezkoentzako espaloia jarriko balukete, zeren Zubietan oinez, kirola egiten... ibiltzen den jendea, geroz eta ugariagoa da.





Jauntxokeriarik ez!!!

Dakizueenez, aspalditik ari gara Usurbilgo Udal hau, usurbildarron zerbitzurako izan beharko lukeen Udal hau, gertu-gertutik zaintzen, batez ere lanpostu eta zerbitzuen kontratazioak egiterakoan. Eta bere jokabidea gutxi-gutxienez diskriminazionala delako, salatu egin nahi dugu, agirian, oraingo idatzi honen bidez.

Lanpostuak kontratatzekeo deialdi publikoak egitean, udalak jatoritasunez eta zintotasunez jokatu behar du bere irudi ona gordetzeko; honetarako, ordea, ezinbestekoa da partaide gutzientzako baldintzak berberak izatea, eta hemen Udalak ez du betetzen gutxienezko baldintzarik ere.

Gaitasuna eta profesionaltasunaren ordez, "amiguismoak" eta zurikeriak edo koipekeriak gailen; eta eredu izan nahi duen edozein udalentsat, hau ez da jokabidea; ez da batere kuxidatekoa eta mesedegarria. Gisa honetako eginbidetatik urruntzeko eskatzen diogu udalari herritarren arteko diskriminaziorik egin edo sortu ez dezan.

Baina honako hau ere, zorigaitzez, argi eta garbi ari gara ikusten: langilerik lagileena, saiatuena ala beteena izanda ere, ez bada "goxo-goxo eta irripartsu" nagusien esanetara eta begietara, edota ez bada nagusien esaneko "arkume xume bildotsa," akabo honekiko graziak eta begiruneak, eta kontuz ibili beharko

du! Aldiz, euren esaneko "axuri goxo apala" bada: euren gogokoa edo erregimenekoa, alegia, orduan bai, orduan jasoko du bedeinkazio ederrik eta ugaririk: lan-maila igoera edota lanpostu atseginagoak etabar eskainiz.

Behin eta berriro, hau ez da batere jokatzeko modua eta gutxiago gizalegezkoa; eta guk, usurbildarrok, hau baino gehiago merezi dugu: garbi eta garden jokatu behar du udalak gai haue-tan. Udala ez da "jauntxoren" batzuk, bakar batzuk, aprobeztatzeko. Udala herriaren zerbitzurako da: herriarena eta herriaren-tzako.

Esanak esan, oraingo hau besterik gabe bukatuko dugu, eta hurren arte.

Udaletxeari

Barkamenak eskatu beharrean aurkitzen gara. Joan den urtean kaleratu genuen agiriaren inguruan azalpen batzuk eman nahi ditugu:

-Ez zen biderik egokiena izan tamaina horretako akusazioak jaurtikitzeko.

-Onartzen dugu BATASUNAREN udal taldean sorturiko oinazea.

-Usurbilgo elkarte eta talde ezberdinei ireki genien atea. Herri bateko Udalari zor zaion errespetoaz trufatu eta irain gogorak jaurtiki Noaia! herri aldizkaria megafono harturik.

Agiri hura kaleratu ondoren izan genuen bileran argi utzi ziguten BATASUNAREN udal taldeko orde-

kariek. Beraiei ere harridura sortu zien inongo konstruktorearik ez azaltzea frontoiaren zozketara.

Guk agiria kaleratzen genuen bitartean, haiek hasiak ziren Udala obren promotore bezala hasteko tramitazioak burutzen. Eta san praixkutarako bukatutzat ematen zuten frontoia. Horren ondorioz, zuzenketa agiri hau kaleratzeko erabakia hartu genuen. Baina obrak hasi arte itxaron nahi izan dugu aginatarren artean inolako presa eta ezinonik ez sortzeko asmoz.

Hemendik dei egin nahi diegu Usurbilgo talde, elkarte eta pertsona guztiei, ez dezaten guk egin genuen hanka sartzea egin. Hitz

egin dezatela Udalarekin zuzenean dituzten kezka eta beharren inguruan.

Ez dira Jaungoikoaren graziaz alkate eta zinegotzi. Onerako eta txarrerako guk hautaturiko ordezkariak ditugu.

Barkamen zintzoenak eskatu nahi dizkiegu: Jose Antonio Altuna, Sebas Kardenas, Karnele Muxika, Karnele Eibia, Nikolas Bengoetxeari eta bereziki aginatarren Xabier Orbegozo, Koldo Lizaso eta Agustin Lizasori.

**Aginagako Frontoiaren
Aldeko Batzordea**

Nora Goaz?

Nora noake argi-izpirik gabe?
Nora zoazke kandela-muki itzaltzeaz?
Nora goazke zutabea erortzeaz?

Nora noake, nora, amilka maldan behera?
Nora zoazke, nora, zaituen sustraia urkatzeaz?
Nora goazke, nora, geure izantza galtzeaz?

Zer dakiguke urik gabeko itsasoa?
Zer, txoririk gabeko oihana?
Zer, argirik gabeko eguzkia?
Zer, euren izatasuna galtzeaz?

Nork egiten nau, bada, naizen naizena?
Nork egiten, zaren zarena?
Nork ematen, izaera eta izena,
euskarak, euskarak ez bada?

Jabier Pikabea Aizpurua

Bakea, hitz magikoa

Usurbildarroi, Euskal Herriko gainontzeko hiritarrei bezala, galdetuko baligute zein den gure nahietan kuttunetarikoa, hainbeste sofritu duen gure herri maite honetan bakea lortzea izango litzateke, seguru asko, gehienon erantzuna.

Bakea, hitzetik hortzera dabilen hitz magikoa, askotan neurririk gabe erabilia, bere benetako esanahia aldatzeraino, zeren "baketzea" eta "bakea" ez dira, ez horixe, gauza bera. Lehena, tamalez, Euskal Herriak azken mendeetan ezagutu ohi duen egoera da eta gure belaunaldiak hori bakea ez dela ziurtatzeko adina eskarmentua badu.

Duela urte t'erdi, zehazki 2000ko ekainean, Usurbilgo Liza-

rra-Garazi taldeak mintegi bat egin zuen eta hogeiren bat herritarrek parte hartu zuen. Asko hitz egin zen bertan bakeaz, elkarrizketaz, eskubideez... Ordurako partaide guztiak jakitun ziren Liza-rra-Garazi hitzarmenak sortutako aukera gainbehera zetorrela, baina era berean, baita ere saikera berriak egin beharko zirela hainbeste amestutako benetako bakea lortu arte.

Bide horretan, betidanik bakearen alde izandako konpromisoari eutsiz, "Bake eszenatokia Euskal Herriarentzat" izenpean proposamena kaleratu du Batasunak azken asteotan, bakea gure Herriari zor zaizkion eskubideen errespetuan datzala azpimarratzen duena.

Herriz herri ezagutaraztea da helburua, ahalik eta herritar gehienak era zuzenean honen berri izan dezan, funtsean, Estatu-etu edo alderdi politikoei baino, gizarteari luzatutako proposamena baita. Asmo horrekin zenbait ekimen prestatu ditugu eta horien artean, datorren martxoaren 14an, ostegunean, hitzaldi-topaketa antolatu dugu Udarregi Zaharrean arratsaldeko 7:30etatik aurrera.

Bakea guztioi dagokigun gaia izaki, zuen iritziek ere garrantzia handia dutelakoan gaude. Horregatik bertaratzeko gonbitea luzatzen dizuegu orri honetatik.

Usurbilgo Batasuna

Hitzordu bat Donostian Bake Konferentzia bultzatzeko

Lagun agurgarria: Bake Konferentziaren helburua bakearen eta berdintasunaren aldeko akordio aldeantza lortzea da. Itxaropentsu gaude eta prozesu honek lehen adostasun bat lortzen lagun dezakeelaren uste sendoa dugu. Hau guztia desiragarria izateaz gain posible izan dadin, ezinbestekoa da ekimen hau gizarte mailan indartzea.

Bake Konferentzia garrantzitsua bezain hauskorra da. Zorritzarez,

askoz ere errazagoa da desegitea egitea baino, suntsitzea erakitzea baino. Horregatik, zuen laguntza eske gatoz, "lagun iezaguzu akordioa lortzen", eta horregatik gonbidatu nahi zaitugu, gutun honen bidez, Bake Konferentziaren alde egingo den mobilizazioan parte hartzera.

Bake Konferentzia bultzatu nahi izanez gero, hitzordu bat duzu Donostian datorren igandean martxoaren 10ean, goizeko 11:00etan, Haizeen Orrazian.

Hemendik abiatuta hiri-ibilaldi bat egingo dugu Kontxatik barrena Kursaalera Boulevardean amaitzeko. Ordu eta erdi iraungo duen hiri-martxa hau oinezkoen bidetik egingo da.

Milaka lagun elkartzea espero dugu eta zu bertan izatea gustatuko litzaike. Jaso ezazu gure agurrik beroena.

Adeitasunez,

Elkarri

ERRAZKIN

**Igeltseritza
orokorra**

Kale Nagusia, 1
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Santueña Mob: 629 42 05 65



HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17



*Pinturas
lon*



943 83 09 37 ☎ 670 397504

Iñaki Mujika: "Lanbide Heziketa bultzatzeko ahalegin berezia egiten ari gara"

Usurbilgo Lanbide Heziketa Eskolan urte asko egin ditu Iñaki Mujikak. 1980an hasi zen irakasle lanetan eta bere zuzendaritzapean Usurbilgo Eskola erreferentzi bilakatu da. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzan ari da lanean, Lanbide Heziketarako zuzendari lanetan. Bide batez, hezkuntzarekin loturik dauden hainbat gai ere planteatu dizkiogu.

Berezia izango da zuretzat Lanbide Heziketa Eskola, ezta?

Niretzat nire eskola da, horrela sentitzen dut. Nire lan-kideei hori adierazi izan diet, beraiek ere beraien eskola izango balitz bezala sentitu behar dute.

Nik Arrasateko Eskolako erreferentzia nuen, eredia da niretzat: ongi txertatua inguruko enpresa eta kooperatibekin. Ni handik netorren ideia horiekin. Eskola honi hori falta zitzaion, erreferentzia izatea lantegientzat. Hortik hasi ginen. Praktikak jarri genituen martxan, era horretan enpresetako ateak zabalduz. Garai hartan ez zen ohikoa, eta bide hori zabaltzea oso interesgarria zen. Gaur egun, derrigorrezkoa da modulu hori formazio prozesuan. Gaur egun, lanbide heziketa ez da ulertzen praktikarik gabe.

Azken boladan bogan dago lanbide hezkuntza, enprese-



Iñaki Mujika Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean ari da lanean.

tan jende espezialduaren beharra dagoelako, ezta?

Azken urteetan unibertsitatea idealizatuta egon da eta Lanbide Heziketa alde batera utzi da. Alemanian alderantziz da. %60 batek Lanbide Heziketa egiten du eta batzuk lanera doaz eta beste batzuk unibertsitatera jotzen dute. Frantzian %65, Espainian %35 eta gure erkidegoan %45ean gaude une honetan. Nahiko ondo kokatuta gaude, baina orain Lanbide Heziketako Zuzendaritzatik %57 ingurura iritsi nahi dugu.

"Lanbide Heziketari garrantzia gehiago ematen zaio orain"

Europako batz bestekoa da eta ikasle kopuru horretara

iritsi nahi dugu.

Eusko Jaurlaritzan zaude orain. Zein da zure eginbeharra bertan?

Lanbide Heziketa ondo planifikatu. Baliabideak ziurtatu: pertsonak, irakasleak eta diruak. Esfortzu handia egiten ari da gizartea. Beste aldetik, euskarari dagokionez, Lanbide Heziketak lan munduari eta teknologiari erantzun dio baina behar bada ez zaio hezkuntzari behar bezalako garrantzia eman. Euskarari egokitu beharra dago. Hor esfortzuak egin behar ditugu euskara enpresa munduan sartzeko, gizarteratzeko. Gure ikasleek, enpresatan egingo diren langileak, eskolatik era-

JOSUE
ARANZAZISTROKI

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Telf: 943 36 05 50
Kalezar 606 37 21 05

Kalkos kopisteria

- ☞ Fotokopiak
- ☞ Fotokopiak koloretan
- ☞ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☞ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☞ Planoen kopiak (AO arte)
- ☞ Ordenadoreko lanak
- ☞ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburuak)
- ☞ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Okindegia - Goxotegia

Erizketa

maten badute, ondoren esfortzua txikiagoa izango da. Eten-gabeko formakuntzari ere garrantzia eman nahi diogu. Lanbide Heziketako sailburu-ordetza sortu da, lehen ez zegoena. Beraz, garrantzia ematen zaio orain.

Ikastolek ikuspuntuan jarraitzen dute, nola jarraitzen duzue hau guztia Hezkuntza Sailatik?

Gaurko egoera ezagutzen dugu. Lanean daudenentzat ez dira komenigarriak Madrildik eta hainbat alderdien aldetik iristen diren tirabira hauek. Baina lasai gaude, azkenean emaitzak adierazten baitute egiten ari garena. Beste erkidegotan baino hobekia dira, baliabideak askoz gehiago dira. Hemengo gizarteak argi du zer egiten ari garen. Horrelako erasoak izaten jarraituko dugu baina lasai gaude. Ideak garbi ditugu eta aurrera goaz. Eta hori da beraieki kezka eragiten diena. Hemengo dinamika bizia da eta hezkuntza sistema gelditzea zaila da.

Zerbait gaineratu nahi al duzue?

Lanbide Heziketara emakume gutxi dira hurbiltzen direnak eta



Lanbide Eskolan 21 urte egin ditu.

efortzen direnak zerbitzu, osasun eta jira horretako lanetan mugitzen dira. Une honetan, gizarte industrializatu batean bizi gara eta lana badago, baina jenderik ez dugu hor lanean jartzeko. Sektore horretan gizonezkoak izan dira nagusi baina horietako lanpostu asko edozeinek bete ditzake, mutila ala neska izan. Baina oraindik auriritzi asko dago. Jendea behar da eta emakumeak langabezia daude eta irtenbide bat izan daiteke.

Imanol Ubeda

“Errebalida horrek ez du zentzurik”

Errebalidak hizpide izaten jarraitzen du oraindik. Iñaki Mujikak ere badaki errebalida egitea zer den. Ez dago ados Madrildik Gobernuak atera nahi duen proposamenarekin. Errebalida auto batekin alderatuz azaldu digu bere planteamendua: “auto bat egiterakoan, produktua egin eta gero lana neurtzen dugu eta ikusiko dugu ondo edo gaizki atera den. Gaizki

atera bada txatarrera bota, funditu eta berriro hasiko gara. Baina hori pertsonekin ezin da egin. Gaur egun, enpresetan kontrola ez da bukaeran egiten, pauso bakoitzari egiten zaio jarraipena. Horregatik errebalidak ez du zentzurik. Jakin behar dena da zer lortu nahi den eta hori lortzeko baliabideak jarri. Horrela egiten bada emaitzak onak izango dira”.

Usurbilgo Lanbide Eskolan trebatua

Beste asko bezalaxe, **La Salle** ikastetxean hasi zen ikasten. Lanbide heziketako ikasgai batzuk ere lantzen zituzten, beti ere orduz kanpo. “Ez zen hainbeste futbol eta esku-baloia eta denbora pasatzeko” tailerreko lanak egiten zituzten. Lanbide Eskolaren hazia hor jarri zela dio Iñakik. **Zarauzko Antoniano** ikastetxean jarraitu zuen ikasten eta handik **Arrasateko Eskola Politeknikora** joan zen. 1977an, soldaduskatik bueltan, lan-egoera kaxkarra zen eta beste hiru lagunekin arrain kontutan hasi zen. Enpresa moduko bat sortu zuten baina Iñaki Mujikaren etorkizuna lanbide heziketan zegoen. Lagun batek esanda, lanbide heziketako irakasle izateko **Madrilen** oposaketa batzuk atera zirela jakin zuen. Aurkeztu eta plaza bat atera zuen. Hasieran, **Usurbilgo Lanbide Heziketa Eskolan** hasi zen. Urtebetetera, paper-akats bat tarteko, **Albacetera** bidali zuten. Baina mugitu beharrekoak mugitu eta **Usurbilen** gertatzea lortu zuen.

1980ko irailean **Usurbilgo Lanbide Heziketa Eskolan** finkatu eta 21 urte egin ditu jarraian.



LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021



Beheko kalea. 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA AUTOZERBITZUA

FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK

Artzabalgo babes ofizialeko etxeek badute jaberik

Prozesua uste bain gehiago luzatu bada ere, azkenean ezagutzen ditugu Artzabalgo babes ofizialeko etxeetan biziko diren herritarren izenak. Aurreko alean iragarri bezala, otsailaren 27an egin zen zozketa udal pleno-aretoan. Ikusmina handia zenez, jendez gainezka egon zen aretoa. Kanpoan geratu zen jendeak ezer gutxi entzun ahal izan zuen.

Plenoak beste itxura bat hartu zuen otsailaren 27an, Artzabalgo etxeen zozketaren egun handian. Tentsioa handia zen. Jokoan zegoena ez baita makala. Askoren itxaropenak bilduta ziren udaletxeko pleno aretoan. Dena den, antolaketa ez zen ikusminaren altueran izan. Jende asko kanpoan geratu zen eta megafoniarik gabe, soilik barrura sartzeko aukera izan zutenek jarraitu ahal izan zuten zozketa. Izenak banan bana sartu ziren bi kutxatan: batean, etxebizitzentzerrenda. Bestean, zozketan parte hartzeko aukera zuten bizilagunen izenak. Horregatik luzatu zen zozketa-prozesua.

Irabazleetako batzuk plenoan ziren eta euren izena entzutean poz ederra hartu zuten. Beste askok sartu bezala irten ziren, aukera berri baten zain.



18:00etan hasi zen zozketa baina jendea asko pleno-aretotik kanpo geratu behar izan zuen.



Udal-ordezkariekin batera, Etxebideko langileak eta notarioak egin zuten zozketaren jarraipena.



Zozketa luzea izan zen, izenak banan bana aipatu behar izan zirelako.

► Zorioneko 46 lagunak

- 1 Edurne Urkia Karrera
- 2 Inazio Saralegi Zubeldia
- 3 Gorka Aierbe Maiztegi
- 4 Txomin Bengoetxea Ugarte
- 5 Jose Javier Fernandez Fernandez
- 6 Jose Bautista Oliva
- 7 Betisa Carrasco Lucero
- 8 Nerea Sarasua Ariztimuño
- 9 Miguel Angel Plaza Sanchez
- 10 Joseba Andoni Sarasua Aizpurua
- 11 Jose Luis Almenara Pedrosa
- 12 Imanol Almandoz Odriozola
- 13 Anartz Aizpurua Berdegue
- 14 Jose Maria Castander Urrutia
- 15 Antonio Pagola Goldarazena
- 16 Iñaki Redruello Gomez
- 17 Esteban Muñoz Bachiller
- 18 Diego Lopez Torres
- 19 Iker Agirrezabala Arrizabalaga
- 20 Antonio Gallego Garcia
- 21 Olatz Rezola Eizagirre
- 22 Tomas Gilarte Garcia
- 23 Esther Martin Mallo
- 24 Ainara Zapiain Altuna
- 25 Arkaitz Errazkin Mitxelena
- 26 Mercedes Hernandez Gonzalez
- 27 Jose Luis Galvez Martin
- 28 German Plaza Tendero
- 29 Felisa Holgado Harto
- 30 Nerea Urkia Zumeta
- 31 Maria Belen Piñas San Fernando
- 32 Antonio Martin Gamez
- 33 Miren Azkonabieta Mitxelena
- 34 Juan Bautista Padrones Ayuso
- 35 Francisco Santiago Garzon
- 36 Fernando Jesus Molano Salomon
- 37 Juan Angel Redruello Gomez
- 38 Asier Portularrume Isasti
- 39 M. Aranzazu Usarralde Aranzadi
- 40 Igor Alkorta Alustiza
- 41 Ana Rosa Anton Sondesa
- 42 David Golderos Esteban
- 43 Javier Zaldua Unanue
- 44 Antonio Garcia Zamora
- 45 Maria Pilar Sanz Resano
- 46 Jon Gallego Garcia

Jada lanean da euskara eta kultura teknikaria



Euskara departamenduko zerbitzu-buru izan da Zarautzen.

Otsailaren amaieran hasi zen lanean Maite Iribar Argote, euskara eta kultura teknikaria. 34 urte ditu eta Oiartzunen bizi bada ere, senitarteko ugari ditu usurbildarrak. Tartean amona, Zubietako Barrenetxe baserrikoa.

Euskal Filologia ikasi zuen eta, besteak beste, UZEIn, IVAPeko euskalduntze zerbitzuan eta Zarauzko Udalan aritu da lanean. Azken honetan, euskara zerbitzu-buru izan da. 8:00etatik 14:00etara topatuko duzue udaletxeko bigarren solairuan. Asteazkenetan, arratsaldez ere bertan izango da, 17:00etatik 20:00etara hain zuten.

Porto Alegreko foroa aztertu zuen Joseba Alvarezek

Otsailaren 28an Joseba Alvarez, Batasunako Nazioarteko Harremanetarako arduraduna, Udarregi Zaharrean izan zen Porto Alegren egin zen Munduko bigarren Foro Sozialaren nondik norakoak azaltzen.

Foroak iraun dituen 10 egun horietan Brasilgo kaleetan anitzasuna izan zen nagusi, mundu osoko pertsonak bildu ziren, neoliberalismo eta globalizazioaren lemari itzulipurdia eman eta norabidea mundu zuzenago baten alde jartzeko aldarrikatuz. Alvarezen hitzetan, "mundu osoan zehar oso mugimendu indartsua eta anitza sor-



Udarregi Zaharrean eskaini zuen hitzaldia Joseba Alvarezek.

tzen ari da, ezkerreko alternatiba gartzan ari da". Euskal Herriko ordezkariak ere han izan ziren, tartean Joseba Alvarez. "Herrien autodeterminazioaren eskubideaz mintzatu ginen guk antolatutako mintegieta, hori baita mundu globalizatu honetan egitismo subiranoa gauzatzeko oinarria. Oso

harrera ona izan zuen mintegiak eta jbate proposamena ere aurkeztu genuen".

Datorren urteari begira, kontinente mailako bost foro sozial egitea erabaki zen Porto Alegren. Hala, azaroan Florentzian egingo da Europako Foro Soziala.

▶ AEK eta Gizarte Zerbitzuen egoitzak inauguratu berri dira

AEK eta Gizarte Zerbitzuen egoitza berriak martxoaren 5ean inauguratu ziren. Udalak Txaramuton atunduriko lokaletan aurkituko dituzue aurrerantzean.



▶ Lagun ugari Batasunak deituriko manifestaldian

Batasunak egindako deiari erantzunez, hainbat lagun bildu ziren "Utzi bakean Euskal Herria" lemapean eginiko herri manifestaldian.



▶ Presoen aldeko barrikotea Aitzagan

Martxoaren 2an presoen aldeko barrikotea antolatu zen Aitzagan. Era honetako ekimenekin, elkartasun ekonomikoa ere beharrezkoa dela aldarrikatu nahi da.

Andatzakoak Luz Ardidenen izan berri dira

Irudi hau Luz Ardidenen ateratakoa da. Han izan berri dira Andatza Kirol Kultur Elkarteko kideak. Hauen deiari erantzunez, 50 lagun aritu ziren eskiatzen martxoaren lehen asteburuan eginko irteeran.

Argazkiari erreparatu ezker, eguraldia ere lagun izan zuten Andatzako lagunak.



**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf.: 943 3650 95

ESTETIKA ZENTROA

LOURDES LARRAÑAGA

- Depilazioak
- Aurpegiko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea
Telf.: 943 36 28 87

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6,
Tel.: 943 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

Elikadura arloan ohitura berriak bultzatzeko talde bat osatu nahi da

Era ekologikoan elikatu eta bizi nahi duten hainbat lagun biltzen dira egitasmo honen atzean. Gizakiok elikatze-ko ditugun beharrak autogestio-natzean datza talde honen helburua. Nola? Bertako produktuak kontsumituz, garaian garaikoa bultzatuz eta ingurugiroa eta lurraren emankortasuna errespetatuz. Beti ere, bertako ekoizleei kontsumituz. Hau guzua sustatu asmoz, barazgintza ekologikoari buruzko ikastaro bat antolatuta dute Udarregi Zaharrean.

Lasarte-Oria eta Usurbilgo hainbat lagunek gogotsu heldu diote gai honi. Ekoizpena eta kontsumoa bultzatzeaz gain, informazioa zabaltzearen

garrantziaz ere jabetu dira. Era ekologikoan lan egiteko baldintzak eta betebeharrak zeintzuk diren aztertuko dira aipatu ikastaroan.

Udala ekimen hauek laguntzeko prest azaldu da

Begoña Rodríguez nekazaritza departamenduko langileak esan digunez, udala ekimen hauek babestearen aldekoa da. Bere ustez, "bertako produktuak eta hauen barruan leudekeen produktu ekologikoak kontsumitzeko eta ekoizteko, sustapen ekimenak behar dira". Izan ere, errealitate gordinak bestelako egoera bat azaltzen digu. Begoñak oso argi dauka: "merkatu zabalak

jaten gaitu, eta praktikan, arrazoi ezberdinengatik, ez dugu zaintzen gure kontsumoa eta inguruko nekazal jarduera ahazten dugu".

Hain zuzen horregatik, sustatze-lanak beharrezkotzat jotzen ditu Begoña Rodríguezek, nekazaritza teknikariak. 2002ko aurrekontuetan 6.000 euroko partida onartu da era honetako planak bultzatzeko.

Halaber, nekazaritza teknikariak garrantzitsutzat jotzen du kontsumitzailearen papera: "bere osasuna zaintzeko aukera izan eta, aldi berean, bere inguruko jarduera bat mantenduko luke".

Aitziber Matxain: "ez-jakintasun handia dago"

Ekoizle izateko asmoa badu, baina oraingoz kontsumitzaileetako bat dugu Aitziber. Usurbilen garatzen ari den taldeko kidea da eta gai honen inguruan asko dagoela egiteko aitortu digu.

Nondik datorkizu elikadurareki-ko kezka hau?

Nekazaritza Ingenieritza Teknikoa egin nuen. Betidanik baserri eta nekazaritza mundua asko gustatu izan zait. Duela bi urte Fraisoroko ikastaro trinko bat egin nuen eta zeharo txoratuta geratu nintzen gai honekin. Nekazaritza ikusteko beste era bat da eta horren inguruan hasi nintzen lanean.

Fenomeno honen inguruko informazio falta dagoela uste al duzu?

Ez-jakintasun handia dago. Dena den, eta inguruan sumatu izan dudanez, jendea hasia da gai hauekin sentsibilizatzen.

**Zuen asmoa ez da kontsumora mugatzen. Ingu-
rugiroa babeste-
ko asmoa ere
badago ekimen
honen atzean,
ezta?**

Kontua ez da soilik elikadura garbi bat izatea, inguruko produktuak kontsumitzea bultzatu nahi dugu, garaian garaikoa kontsumitzea...



Aitziber Matxainek ekoizle izateko aukera ez du bazterten.


bizi filosofi batekin lan egin nahi da, naturarekin harremanetan eta ingurugiroa errespetatuz.

MAHUKA

BEHERADENAK

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



TXIRIBOGA

TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

Laster hasiko da barazgintza ekologikoa sustatzeko ikastaroa

Udarregi Zaharra barazgintza ekologikoaari buruzko ikastaro baten lekuko izango da. Ziklo hau martxoaren 20an hasi eta 28an amaituko da, eta Jesus Calvillo izango da hizlarietako bat. Fraisoron egiten du lan eta berak eman dizkigu ikastaroaren xehetasunak.

Barazgintza ekologikoa asko hitz egiten da baina baserrietan betidanik lan eginda era "ekologikoa", ezta?

Nekazaritza ekologikoa egitea ez da normatiba bat betetzea bakarrik eta zentzu honetan horrela ere uler daiteke: naturaren zikloekin eta erritmoekin bat egiten duen jarduera da. Beraz, baserrian lan egiteko moduak ekologikoak izan ziren aspalditik. Gehiago ere esan dezakegu, tradizionalak edo lekuan lekukoak diren antzineko jarduera produktiboak, bai hemen bai munduko beste leku askotan ere, ekologikotzat jo ditzakegu. Ez ahaztu baina, gure inguruan inpaktua sortuko dugula beti eta gaur egundo nekazaritza ekologikoak azken urteetako ezagupen eta teknika berriak erabiltzen dituela inpaktu hori murrizteko.

Hiritarrok ba al dakigu benetan zer kontsumitzen dugun?

Ez dakigu ia ezer gai horietaz eta interes desberdinak dauzkagu gai horien inguruan. Adibidez, baserriaren munduari buruzko jakinmina somatzen dut nik kontsumitzailearengan. Produktuei buruz, berriz, alderantziz: esan daiteke ez gaituela batere erakartzen jaten duguna pozoinduta egon daitekeela jakiteak edo zenbait produktu kimikok osasunean sor-



Era ekologikoa ekoizten hasi nahi dutenentzat ikastaro egokia da hau.

ditzaketen eraginak ezagutzeak.

Azkenik, ikastarora hurbiltzen denari zer irakatsiko zaio?

Ikastaroa nekazaritza ekologikoan ekoizten hasi nahi dutenentzat da, eta behar beharrezkoa da ikasitakoa praktikan jartzeko lurzatiaren jabe izatea edo helburu horrekin berau eskuratu ahal izatea. Zentzu honetan zuzendu dugulako ikastaroa: praktikoa eta praktikan berehala jartzekoa. Ikasgelan eta praktikatan bilatzen dena da ikasle bakoitzak bere proiektu pertsonala gauzatea. Eta horretarako gai anitzez osatu dugu egitaraua: barazgintza, fruitugintza, abelzaintza ohikoenak dira, baina adibidez, kontabilitatea, kalitatearen neurketa, enpresen sortzea eta produktuen eraldaketa bezalako gaiak erantsi ditugu. Aipagarria da baita, ikasgelatik maiz ateratzen garela nekazaritza ekologikoa zuzenean zer den ikusteko eta egiten dutenekin hitz egin eta egon ahal izateko.

Biolur elkartea da mugimendu honen sustatzaile nagusia

Biolur elkartearen baitan, nekazaritza ekologikoa-ekin sentsibilizatuta dauden guztiak biltzen dira: baserriarrak, kontsumitzaileak, teknikariak... Elkarlanean, elikagai ekologikoak ekoiztu eta kontsumitzeko ohitura zabaldu nahian dabilta. Beraz, ez dira soilik ekoizpena mugatzen, kontsumo-joera berri baten alde ari dira lanean. Ekoizpen ekologikoak zabaldu eta promozionatzea dira Biolurren egitasmo nagusiak.

Gizakion osasunerako ona izateaz gainera, lurra babesteko ere ezinbestekotzat jotzen dute ekoizpen ekologikoa. Ez baita produktu kimikorik erabiltzen eta ez dutelako inongo hondakin toxikorik. Baina osasun arloa garrantzitsua bada, ingurugiroaren babesa ere bada Biolurren kezka.

Izan ere, hain zabaldua dagoen ekoizpen kimiko eta intentsiboarekin, lurra eta ura kaltetzen ari gara. Zentzu horretan, lurraren emankortasuna eta ekosistemaren oreka errespetatzea oinarritzotzat jotzen du Biolurrek.



HAUR JANTZIAK
MERKEALDIAK!



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43



ZUMETA
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapo txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, ondo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

IGELTSERITZA

URDANTZI, C. B.

Mugikorra: 649435475
649435476

☎ 943 363370- 361439

Pintore izateko ikastaroa abiarazi du enplegu bulegoak

Azken urteotan langabezia-tasa asko jeitsi da. Baina hala ere, badira langabezian egotera behartuta dauden hainbat lagun. Hauei irtenbidea eman asmoz, enplegu bulegoak margogintza ikastaroa antolatu du Udala eta INEMen lankidetzarekin. **Martxoaren 20an hasi eta urriaren 16an amaituko da Aginagan eskainiko den ikastaro hau. Izena emateko epea martxoaren 15ean amaituko da.**

Goizez emango dira klaseak, 8:30etatik 13:30etara. Zazpi hila-beteren buruan ikasleek pintura eta paperezatzeko lan ezberdinak egiteko gai izango dira: tenpera pintura, pintura plastikoa, barnizatzeak, lakatzeak zein esmaltatzeak, paperaztatzeak eta imitazioak (egurra, marmola, adreilua) eta errotuloak.

Udala 1992an hasi zen honelako ikastaroak antolatzen. Handik gutxira, pintura enpleguak lan merkatuan zuen erantzun ona ikusirik, udalak pintore lanbidea homologatzea erabaki zuen INEMekin. 1998tik profesionaltasun ziurtagirien araudian barruan dago pintore lana.

Urte horretan, ikastaro honetatik pasatako 50 ikasle baino gehiagoren egoera aztertu zen eta kolokazio maila %60koa izan zen.

Azken urte hauetan hainbat enpresen lan eskaintza jaso da enplegu bulegoan, baina Josune Mujikak azaldu digunez, "ezin beterik ibili gara, ikasle izandako guztiak lanean zehar delako. Enpresa hauek ere aipatu izan dute langile prestaturik ez dutela topatzen".

Beraz, ikastaroaren asmoa hutsune hau betetzea litzateke.



Margogintzaren arlo ezberdinak ikutuko dira.

Beste alderdi batzuk ere hartzen dira kontuan: ikastaroaren kalitate maila, ikasleen adostasun maila ikastaroarekin, gustura egotea.... Alde honetatik ere balorapena positiboa egiten du enplegu bulegoak; zenbaitetan ikasleak ikastaro berri bat egitera animatu baitira, motibazio maila altuagatik eta teknika gehiago ikasteko asmoz.

Ikastaro egokia langabezian dauden emakumeentzat

Enplegu bulegoko kideek emakumezkoak animatu nahi dituzte. Josune Mujikaren ustez, margogintzan lan aukerak izan ditzakete.

Bereziki emakumeak animatu nahi dituzue, ezta?

Emakumeen langabezia-tasa altuagoa da gizonezkoena baino, beraz, gure ekin-tzetako hartzaile izatea nahi genuke. 2.000. urtean 3 emakumezko parte hartu zuten eta 2001 ikasturtean berriz 4k. Lehengo urtean bukatu zuten emakumeetatik bat lanean da eta beste biak berriz pinturako enpresetan praktikak egiten ari dira. Beraz, pixkanaka emakumeak ere sartzen ari dira enplegu honetan. Bestalde, ikastaroan teknika

dekoratzaileei garrantzia ematen zaie eta honetarako emakumeak askotan esku gehiago daukatela ere konturatzen hasi dira. Hau dela eta, dekorazio mundutik datozen emakume langabe-tuak ere badute bere lekua ikastaro honetan, aurretik izandako prestakuntzaren osagarri bilakaturik ikastaro hau.

Ikastaroa amaituta, lan egiteko aukerarik ba al da?

Ikastaro hauetan parte hartzen dutenek ere enpresetan praktikak egiteko aukera izaten dute. Beti ere praktikek enpresa batetan sartzeko aukera ematen dizute, eta bide batez, langabetuaren gaitasuna adierazteko auke-

LANGABEZIA, URTEZ URTE

Urtea	Gizonak	Emakumeak
2001	53	74
2000	64	78
1999	78	105
1998	78	123
1997	102	133
1996	134	147
1995	132	151
1994	148	158
1993	131	144

ra izaten da, honela, enpresari gustatuz gero beharra duenean zuzenean harremanetan jarriko da berarekin; beraz, lan bilaketarako modu bat da praktikena.

Gipukoako gimnasia erritmikoaren arduradun nagusia da Brigitte Ibens

Bitxia da emakume honen iblbidea. Senarra Bilbokoa du baina Malin ezagutu zuen. Artean erizain lanetan zebilen Medicus Mundi-rekin. Ezkondu eta lehenik Eibarren finkatu ziren. Baina duela 20 urte Usurbila etorri zen. Gaur egun, Gipuzkoako Gimnasia Erritmika Federazioko lehendakaria da eta Donostian duen bulegoan jaso gintuen.

Belgikan, Amberesen jaiotakoa zara. Gogorra al egin zitzaizun hona moldatzea?

Hasieran bai, baina azkar asko moldatu nintzen. Eibarraren egon ginen lehenbizi eta han frantsesa menderatzen zuen bikote bat ezagutu genuen; hori oso lagungarria izan zen. Gaztelania ikasten hasi nintzen ondoren. Euskara ere ikasi nuen zeozer. Irakurritakoa ulertzen dut baina hitz egitea zailagoa da. Ulermena ere, pertsonaren arabera; eta hitzekoa ere uler dezaket.

Nola iritsi zinen Gimnasia Erritmikako Federaziora?

Alaba sei urterekin Hernanin hasi zen eta beste guraso batzuekin Hernaniko taldea osatu genuen. Dinamika horretan murgildu nintzen eta handik aurrera federazioan hasi nintzen laguntzen, eskolarteko txapelketetan batez ere. Jendeak prestutasun gutxi zuela ikusita, hautagai bakarra izan nintzen azken hauteskundeetan eta lau urterako hautatu ninduten lehendakari lanak egiteko.

Eta zaila al da presidente izatea?

Ez dut preparazio berezirik kargu hau betetzeko. Pentsatzen dut etorkizunean gauzak



Amberesen jaioa da baina 20 urte egin ditu jada Usurbilen.

aldatu egingo direla. Kargu boluntarioak desagertu ez baina denborarekin profesionalizazioa nagusitu egingo da.

Asko dago egiteko, beraz.

Paper asko bete behar dira, idazkari lanak egin, kontratuak sinatu, leihaketak antolatu, dirulaguntzak kudeatu, Foru Aldundiarekiko harremanak... Lan asko pilotzen da.

Emakume izanik, zer nolako tratua jaso duzu lehendakari postuan zaudenetik?

Ni gustura nago tratuaekin. Instituzioen aldetik harremana eta tratua ona da. Gainera, emakumeen parte hartzea sustatu nahian dabiltzala esango nuke: kirolean zein kargu ezberdinak betetzeko orduan.

Imanol Ubeda

Oiardo kiroldegian ere bada gimnasia ari den talde bat

Usurbilen ere badira gimnasia erritmikoan dabiltzan hainbat lagun. Oiardo kiroldegian 12 urte dira taldea osatu zela. Eskolarteko txapelketa eta ikuskizun ezberdinetan hartzen dute parte. Gaur egun, 17 gaztetxok osatzen dute taldea. Hala ere, taldeak gustura hartuko lituzke ikasle gehiago. Susana Villa eta Marisa Ruiz dira taldeko gidariak.



Asteartetan eta ostegunetan biltzen dira Oiardo kiroldegian.



Arkaitz Portularrume



Torturaren Aurka-ko Tadeko kidea.

Arotza.

25 urte.

Torturaren desagerpenaren aldeko mozioa

Tortura errealitate ukaezina izan da azken urte hauetan. Eta egun ere hor da.

2000.urtean 77 euskaldun salatu dituzte tratu txar eta torturak euren atxiloketetan. Ezarritako 55 salaketa judizialeetatik 35 berehala artxibatuak izan ziren. 2001. urtean, hiruhilabete bakarrean 93 atxilotu egon ziren legedi antiterroristak bideratutako inkomunikazio egoeran. Usurbilen 26 urtetan, 28 herritarrek jasan dituzte tratu txar eta torturak.

Datu hauek ez dira nahiko? Noiz arte tortura? Nor izango da hurrengo? Zenbat Gurutze lantzi edo Iratxe Sorzabal gehiago?

Datu hauek oso beldurgarriak izan arren alderdi politiko batzuentzat ez dira nahiko. Usurbilen, Otsailak 26 asteartea, T.A.T-ek 9 puntutan oinarritutako mozio bat aurkeztu zuen, non atxilotuaren eskubideak bermatzea eta legedi antiterroristaren ezabatzea eskatzen den.

Puntu hauetan atxiloketa osteko 5 eguneko inkomunikazioa murriztea, senitartekoek atxilotua non aurkitzen den eta bere egoera nolakoa den ezagutzea, osasun fisiko eta psikikoa bermatzea, egoitza polizialak kameraz ornitzea, epaile eta agintari judizialen aldetik sakoneko ikerketa ahalbidetzea tortura testigantzen aurrean,...

Udal batzarra osatzen duten alderdi politiko batzuek onartu zuten mozio hau, Batasuna-k eta EA-k hain zuzen. Baina beste alderdiak, PNV eta PSOE kasu, lehena abstenitu eta bigarrenak aurka erantzun zuen. PSOE gobernuan zegoenean indartu zen torturaren jarduera hau, horra hor Gurutze lantziaren kasua. Eta zenbat torturatu Ertzaintzaren, PNV-ren esanetara dagoen poliziaren komisaldegietan?

Torturarekin amaitzeko legedi antiterrorista deusezteka ezinbestekoa da legedi hau torturari inpunitate osoa emateko bideratua baita.

Eta tamalez gure egunerokotasunaren parte bihurtu da, azken kasua aurreko astean gertatu da, Mikel Soto hospitalizatu zutelarik. Ezin dugu egunerokotasun hau normaltasunera iritsi dadin onartu.

Herriko eragile sozial, politiko eta kultural guziek zein herritar orok dugu zer esana eta zer egina egoera hau alda dadin.

Guztion artean soilik lortuko dugu behar adina indarrez aldarrikatzea, guztion artean: torturari stop!!!

Legedi antiterroristari ez!!!

Torturaren Aurkako Taldea

GALARRA GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Lehiaketa



Noiz inauguratu zen Usurbilgo udaletxe berria?

1970eko abenduaren 27an
1980eko abuztuaren 27an
1990eko urtarrilaren 27an

Asmatzaileen artean auzoetako posterrak eta Noaua!ko bi kamiseta zozketatuko ditugu

130. aleko erantzuna



Zuzen.



Oker.

Aurreko zenbakiaren erantzuna:

Koxkolak falta ziren aurreko zenbakian argitaraturiko argazkian.

Irabazlea

Aloña Azpiroz Eizmendi

Saria

“Zubieta mila urteko herria” liburua

Gurutzegrama

	Gosea berandu duena Ehiztarien su-arma	Herriko zubietako bat (1) Kurdistango herritarra	Interneteko domeinu bukatara Makina, tresna baten osagola	Dago Soka luzatu, ... egin
	Euri asko egiten duenean Busturik ez dagoena			Azaleko ebaki
Ilteak sartze-ko ememina Geldi, lasai	Belarek estaltzeko eremu Roentgenaren ikurra		EH-ko diskoi-txe ezaguna Einsteinioren ikurra	
		Hamabi aleko multza Emakume izena		
Iodo-aren ikurra	Aukera, hautatzea Zirconioaren ikurra		Ereplikatu, hegazti mota 1+1	
Herriko zubietako bat (2)			Boroaren ikurra 50	Roentgenaren ikurra
Kalore horiko metal preziatu		Herriko zubietako bat (3)		

Ea topatzen dituzun gurutzegrama honetan herriko hiru zubi nagusiak

I	R	I	L	A		E	R	R	N	
R		B		Z	V	N	O	Z	L	V
U	K		V	A	U	H			I	
V	N	E	Z	O	D		E	R	V	B
Z	I		E	R	R	V	L		M	
	E	T	I	R	U	E				
V	T	E	P	O	K	S	E			
D		N		Z	V					

ITURGINTZA

JOSEBA ARANGUREN

Telf: 943 83 00 72

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadaren konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67



Giltzak kopiatzen ditugu!

Zapatak, Kanpinak, Kremailerak (poltsak, zamarrak, galtzak...)

Kale Nagusia, 2

Tel: 943 37 27 95

MARTXOAK 11 astelehena

● Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz enkartelada arratsaldeko 20.00etan.

MARTXOAK 18 astelehena

● Euskal presoak Euskal Herriratzeko enkartelada 20.00etan.

● III. Futbito Txapelketan izena emateko azken eguna. Prezioa: 50 euro, 14 urte azpikoek, 14 euro. Izena emateko tokiak: Aitzaga, Txiriboga, Sagasti, Txurru, Irrati eta Gaztetxea.

MARTXOAK 21 osteguna

● Alicia Stürzte historialariaren hitzaldia UGAN, 19:00etatik aurrera.

GARAJEAK

🔧 Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424

🔧 Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzeko da. Telf. 656 759 583.

🔧 Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.

🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.

🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.

🔧 Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. Inork nahi badu dei dezala telefono zenbaki honetara: 943 360 273 (Javier).

🔧 Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreran). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09

ETXEBIZITZAK

🔧 Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara.

🔧 Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469

🔧 Pisu bat dut salgai. Deitu 13.00etatik 15.00etara edo 20.00etatik aurrera 943 372983 telefonora (M^{re} Angeles)

LAN-ESKAERAK

🔧 Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 366485 telefonora.

🔧 Emakume bat eskaintzen da astean hiru egunetan, goizez lau edo bost orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 943 36 43 10.

🔧 Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9:00etatik eta 14:00etara ostalaritza edo etxeko lanetarako, derrigorrezkoa da gizarte segurantzak. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.

🔧 Pertsona bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edota 3. adinako pertsonak zaintzeko. Telf: 647 220 966.

LAN-ESKAINTZAK

🔧 Pertsona bat hartuko nuke arropak garbitzeko apopilo bezala. Gela indibiduala. Interesatuak deitu 943 36 57 37 telefonora.

🔧 Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonotara.

BESTELAKOAK

🔧 Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.

🔧 Edozein ohetarako balio duen erabilbi gabe dagoen trapezio bat salgai. Deitu 943 835441 telefonora (Begoña).

🔧 Abenduaren 2an, igande goiza, jertsea galdu nuen (urdina marra zuriekin). Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez 943 37 19 75 telefonora. Gauzez deitu.

🔧 Belarritako bat galdu dut, urrezkoa eta perlita bat du. Bilatzen duenak deitu dezala 943 362 088 telefono zenbakira.

🔧 Erloju bat ekarri dute Noauara. Beraz, norbaitek bere erlojuja galdu badu, etorri gure egoitzara, ea hemen daukaguna den ikustera.

🔧 Nissan Micra bat salgai. Gasolina. 65.000 km. SS-AY. Interesatuak deitu 943 37 23 87 telefono zenbakira.

🔧 Opel Corsa bat salgai, SS-AL. 300.000 pezetan, kuota eta transferentzia barne. 943 37 26 92.

🔧 Ford Escort Ghia TD familiarra salgai. SS-BB, CD ekipoduna. Telefonoak: 657 796 777 / 943 37 19 54.

KIROL DEIAK

FUTBOLA

Martxoak 9/ 10

Aide Zaharra - Usurbil FT (Eskualdeko Maila, E)
Lasarte - Udarregi (Infantilak, G)

Martxoak 16/ 17

Udarregi - Laskorain KE (Infantilak, G)

ESKUBALOIA

Martxoak 9/ 10

Usurbil KE - Axis UPV-EHU (2. Nazionala, G)
Usurbil KE - Salesianos (2. Nazional Maila, E)
Usurbil KE - Egia (Jubenilak, G)

Martxoak 16/ 17

Ormaiztegi-Usurbil KE (2. Nazionala, G)
Arrate Txiki - Usurbil KE (Jubenilak, G)

ARETO-FUTBOLA

Martxoak 9/ 10

Aitzaga - Ordizia (Jubenilak, E)

Martxoak 16/ 17

Ramon Vizcaino B - Txotx (2. Maila B, G)
La Salle "A" - Aitzaga (Jubenilak, E)

ONDARTZA-FUTBOLA

Martxoak 9/ 10

Atsedena

Martxoak 16/ 17

Donostikussen-Aginaga Sagardotegia (Senior Kopa Txapelketa, G).

* G: Gizonezkoak / E: Emakumezkoak.

KIROL EMAITZAK

Otsailak 23/24

FUTBOLA

Usurbil FT 2 - Tolosa 0 (Eskualde Maila, E)

La Salle Berroizpe 2 - Udarregi 5 (Infantilak, G)

ESKUBALOIA

Usurbil KE 28 - Am Zarautz 24

(2. Nazionala, G)

Sestao 23 - Usurbil KE 15

(2. Nazionala, E)

Usurbil KE 23 - Arrate Txiki 26

(Jubenilak, G)

ARETO-FUTBOLA

Aiete 7 - Txotx 3

(2. MAILA B - I)

Laskorain 6 - Antxeta 1

(2. MAILA B - II)

Peio Arraindegia 2 - Mikelson 7

(2. MAILA B - II)

Aitzaga 3 - Zestoa 1

(Jubenilak, E)



Herriko ikerlanak martxan jartzeko gai zerrenda osatu zen Kultura Aholku Batzordean

Otsailaren 23an burutu Kultura Aholku Batzorde berezian, herriari buruzko ikerlanak egiteko gaitegi zabala osatu zen. Bertan udal ordezkariak, Noaua!ko ordezkariak, euskara eta kultura teknikaria, artxibozaina, historialariak eta herritarrak izan ziren, besteak beste.



berritzeko beharra ere aipatu zen. Egun dagoena 1991. urtean egin-dakoa baita.

- Herriko industria egituraren azterketa.
- Herriko eraikinen estilo arkitektonikoaren azterketa.

Udala eta Noaua! Kultur Elkartek irekitako elkarlanaren bitartez, Usurbilgo herriari buruzko ikerlanak egiteko egitasmoa martxan da jada. Kultura Aholku Batzordean proposatu ziren gaiak honako hauek izan ziren, besteak beste:

- Gerra Zibila Usurbilen, lehen pertsonan kontatua eta historia orokorrekina osagarrituta. Herriko aiton-amonen bizipenak eta istorioak jaso nahi dira.
- Desagertu berri den Hitza

Jasoz taldeak egindako lanaren jarraipena burutzea. Usurbilgo hizkera jaso nahi da.

- Herriko kultur jarduera berpizteko kultura politika finkatzea. Diagnostiko orokor bat egin, eta horren arabera kultura plangintza osatu.
- Udal fototekaren jarraipena egin: digitalizatu diren argazki guztien fitxa osatu.
- Sagardogintza: sagardoa eta sagardogileak.
- Herriko toponimia

- Herriko pertsonaiak.

Gai hauetaz guztietaz gain ere, beste hainbat gai ere proposatu ziren bileran. Hala ere, ez da zerrenda itxia, eta zuek oraindik ere proposamenen bat baduzue, deitu lasai eta egin zure ekarpena.

Orain, irizpide batzuk zehaztuko dira lehentasunezko gaiak zein diren zehazteko eta aurten ze ikerlan jarriko den martxan. Honekin batera ere, epe motzeko argitalpen plangintza ere osatuko da.

Ireki atea Noaua! Kultur Elkarteari eta egin zaitez bazkide!

Aspaldi bazabiltza bazkide egin nahian, edo bazkide egin nahi duen norbait ezagutzen baduzu, Aitziber laster gerturatuko da zurera!

BAZKIDIE TXARTIEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: _____

1. Abizena: _____

2. Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Tfnoa: _____

Kontu Korrontea (20 digito): _____



Momentu honetan 525 bazkidek osatzen dute Noaua! Kultur Elkartea


Egin txotx! Herriko-tolare

Sagardotegietan!

Telf: 943 36 67 10- 37 06 68
Aginaga

Urte guztian egunero
irekita astelehenetan ezik

A G I N A G A
SAGARDOTEGIA



Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera

Zubieta, Telf: 943 36 20 49

Egin txotx!

Vrtamilarren 7-tik aurrera
irekita eguerdiz eta gauetz
Menua: 21€

Zubieta auzoa
tlf: 36.12.29



Sidreria

Sagardotegia

ASTIAZARAN

Zubieta, Telf; 943 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

SAIZAR
SAGARDOTEGIA



Kalezar, Telf; 943 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita.